

# ADARRA

## Pedagogi Erakundea

Mitxel Labegerie, 2-3.a 3.deptua. 48005 - Bilbo  
944153795 [adarra@arrakis.es](mailto:adarra@arrakis.es)



**IRAKURKETA DIALOGIKOARI  
buruzko jardunaldien ondorioak  
(Bilbo, 2006ko maiatzaren 16a eta 17a)**

Gure ikasleen zati handi bat ez dago gainerakoen egoeran eta desberdintasun hori gainditu ahal izateko, eskola-arrakastaren eta guzti-guztiek ikastea lortzearen alde egingo duten estrategiak planteatzen ditugu.

Ezinbestekoa da irakurketa menderatzea, zentzu honetan aurrera egin ahal izateko.

Bizitza osoan zehar ditugun elkarreragin ezberdinei esker (berdinen artekoa, helduekikoa...) joan gara guztiok ikasten. Elkarreragin horien bitartez ikasi ditugunak luzaroan irauten dutela erakusten digute zentzuak eta hainbat azterlanek.

Eta horrexegatik iruditu zaigu garrantzitsu ADARRAkooi, irakurketa dialogikoan sakontzea.

### IRAKURKETA DIALOGIKOA

Elkarreraginak ikaskuntzarako, eta dagokigun honetan irakurtzen ikasteko, oinarriko elementuak direlako ideian oinarrituta dago irakurketa dialogikoa. Hitzei eta idatzizko testuei esanahia erantzen dien prozesu intersubjektibo bat bezala definienezake irakurketaren irakaskuntza ikuspegi dialogiko batetik. Prozesu hau ez da bakarrik gelan ematen, etengabe ematen ari da edonon, haurren eta beste pertsona batzuen artean elkarreragina dagoen bitartean. Ikuspuntu honetatik abiatuta, haur batzuek beste batzuek baino elkarreragin handiagoa jasotzen dute irakurketaren gainean, inguruan dutenaren arabera. Hartara, irakurtzen ikasteko arazoa ez datza eremu, denbora-tarte edo pertsona kopuruak areagotzean.

Helduen eta haurren arteko baterako parte-hartzea da ikuspegi dialogikoaren funtsa, horrela testuinguruko baliabideak optimizatzen baitira. Gainera, elkarlan honi esker, irakurketaren ikaskuntza instrumental hobea lortu eta egoera baztertzailen aldaketaren alde egiten da.

Partaidetza hori gelan bertan suspertzea ez ezik, liburutegian, eskolaz gaindiko eremuetan, etxean, eremu komunitarioetan eta abarretan tartekatzea planteatzen da. Elkarreragineko eremuak ugaltzea, eta tartean pertsona ezberdinak izanda, irakurketa eremu gehiagotan eta pertsona gehiagorekin lantzea da helburua.

Testuen eta irakurleen artean ezartzen den berdintasunezko irakurketak, informazio aztertzen, interpretatzen, baloratzen, ulertzen eta, elkarrizketa gogoetatsuaren bitartez, kritikoki, ezagutza berri bat sortzen laguntzen du. Ikasle guztien eta esperientzia, bizipen eta jakintza ezberdinak dituzten helduen arteko elkarreraginak eta elkarrizketak bultzatzen direnean, irakurketarekiko zaletasuna kutsatu ahal da, jarduera interesgarriagoa bilakatzen baita.

Elkarreragineko taldeak edo literatur solasaldiak bezalako metodologia ezberdinak eta gela, tutoretzapeko liburutegiak eta gela digitalak bezalako eremu ezberdinak erabilia lantzen ari da ikastetxeetan irakurmena.

## *Talde elkarreragileak*

Elkarreraginak eta talde heterogeneoak bideratzearen alde, gela antolatzeko moduan datzate talde elkarreragileak, eta horietan, heldu batek baino gehiagok suspertzen du ikasleen lana. Gela hainbat ikasle-taldetan banatu eta bakoitzak jarduera bat garatzen du. Taldeek txandaka burutzen dituzte jarduera ezberdinak, baina ekintza bakoitzaz arduratzen den heldua, berbera izango da beti. Helburu instrumentalak zein baloreak oinarri dituztenak aintzat izanda diseinatzen ditu gelaren tutoreak jarduerak. Jardueraren arduraduna, berdinen arteko elkarreraginak bultzatzen ditu, hau da: elkarri laguntzea, argudioak ematea edo batzuek besteengandik ikastea.



Kontua ez da izango bakoitzaren zailtasunen arabera ikasleak banatzea, gela barruan ikasi behar direnak sustatzea baizik. Ikasle guztiek etengabe ikastea eta ohiko baliabideekin baino gehiago ikastea da talde elkarreragileen helburua. Gainera, zailtasun handiagoak dituzten ikasleek besteengandik ikas dezakete eta ariketa lehenago bukatzen duenak edo azkarrago ulertu duenak besteari azaltzen dio (baina ez dio egiten).

Irakurtzen ikasteko oso baliabide egokiak dira talde elkarreragileak, ariketan denek parte hartzen dutelako eta taldeko berdinek eta helduek ekartzen dituzten estrategia ugari bideratzen dituztelako.

Talde heterogeneoek guztien ikaskuntzaren alde egiten dute inor kanpoan utzi gabe. Gainera, zail, gatazkatsu edo motelentzat jotako ikasleentzat edo ikasten zailtasunak dituztenentzat antolatzen diren gela bereziak edo kanpo-unitateak sortuz ematen den konponbide partziala gainditu egiten da.

Ondorio kaltegarriak ditu ikasleak mailaka edo lan-erritmoaren arabera bereizteak, hots, talde malguen izenaz ezagutzen denak. Ikasteko zailtasunak dituztenengandik espero diren aukera txikiak, eta gainerako ikasleengandik zein komunitatearengandik jasotzen dituzten gutxiespenek, barneratu eta eskola-porrota izaten dute ondorio. Urtetik urtera areagotzen ari da azkarren eta motelen arteko tartea, eta baita kultura nagusiko ikasleen eta gutxien kulturakoen artekoa. Galtzaile ateratzen diren ikasle hauek aurka egiten dute eta bizikidetzako gatazkak eta arazoak sortzen dituzte.

Ikasleei etiketak jartzeak eta gaitasun handienak eta txikiak dituztenak bereizteak, hezkuntza-arloko desberdintasuna sortu eta gizarte-taldeen eta kultura ezberdinen arteko gizarte-ezberdintasun berberak sortarazten ditu.

Ikasle guztiek ikasiko dutela bermatzen denean eta, lehiakortasuna beharrean, elkartasuna gailentzen denean, jatorri ezberdineko ikasleen eta familien arteko bizikidetzaz arazoak desagertze aldera egiten dute eta gabezien edo ideia arrazisten kontzeptuak gainditzearen alde egiten dute guztien artean.

Taldeetan sortzen den dinamikari esker, ikasle guztiek ikasteaz arduratuko direla bermatzen da, eta baita, gainerako ikaskideek ikasteaz ere. Rol-aldaketa sustatzen da talde elkarreragileetan: ikasleak ikaskideei irakatsi ahal die, baina beste zenbaitetan baita ikaskideengandik ikasi ere. Berdintasunezko elkarrizketan oinarrituta, elkarri laguntzen, ahaleginak partekatzen, gauzak modu argiagotan azaltzen, elkarri adre ematen eta elkartasuna erakusten ikasten dute ikasleek.

Honela, dinamika bera erabiliz, bi garapen ezberdin ematen dira: bata, elkartasuna edo beste kulturekiko eta aniztasunarekiko errespetua bezalako balioena, eta, bestea, ikaskuntza instrumentalarrena, laguntza jaso eta ematen duena (lantzen dituen azalpenak medio) ikasten ari baita. Modu honetan, eskola-etekinik handienak lortu ahal dira.

### *Literatur solasaldi dialogikoak*

Literatur solasaldia hezkuntza- eta kultura-arloko jarduera da, eta honetan, testu literario batean oinarrituta, gizarteari buruz hausnartu, eztabaidatu, argudioak eman eta beren esperientziak eta hausnarketa kritikoak ematen dituzte partehartzaileek. Orobat, berariazko interpretazio literarioetan ere sakontzen dute.



Solasaldia zuzentzen duen pertsonak, berdintasunezko elkarrizketan oinarrituta, partehartzaileek interpretazioak eta argudioak ematearen alde egingo du, betiere, berak duen ikuspegia inposatu gabe eta beste inork bere ikuspuntua lehenestea eragotziz. Moderatzaileak hitz egiteko txandak ematen ditu eta gutxien esku hartzen dutenei lehenetsua ematen die, baina denek beren argudioak ematen utziz, elkarrekin hausnar dezaten. Solasaldiaren helburua ez da besteak konbentzitzea, hausnarketa eta elkarrizketa oparagoa bideratuko duten argudioak aurkeztea baizik.

Irakurriz, elkarrizketatuz, hausnartuz eta elkarrengandik ikasiz, ikasteko, irakurmena hobetzeko eta balioetan sakontzeko baliabidea izateaz gain, plazer bilakatzen da literatura. Honela, pixkanaka, ikaskuntza eta partaidetzako oztopoak gainditu egiten dira.

Balioak lantzeko aukera bikaina eskaintzen du literatur solasaldiak, horietaz blai baitago literatura ona. Pertsona guztiengana heltzen diren giza intereseko gaiak buruzko hausnarketa sakona bermatzen da klasiko unibertsalak irakurtzean. Gainera, berdintasunean oinarritutako solasaldi batean, denok sentitzen duguna adierazi eta, aldi berean, errespetatuak izan gaitezke.

Era ezberdinetako solasaldi literario eta pedagogikoak antolatzen ari dira ikastetxeetan, hala nola: ikasleen eta irakasleen arteko solasaldiak, senitartekoen artekoak, ikasle eta senitartekoen arteko solasaldi mistoak eta, ikasle, senitarteko eta irakasleen artekoak.

Solasaldietan senitartekoez edo komunitateko beste eragile batzuek esku hartzen dutenean, kultura, adin, baliabide eta prestakuntza akademiko ezberdinak dituztenen arauak eta balioak partekatzea eta bateratzea izaten da helburua, eta egungo gizartean dauden eztabaidak txertatzen dira eskolan eta komunitatean. Senitartekoen eta boluntarioen parte-hartzeaz elkarrizketaren eta hausnarketaren alde eginez gero, iritzi ezberdinak partekatu, bizimodu ezberdinei buruzko elkarrizketa sustatu eta hurrek dituzten erreferenteak aldarazten dira.

**Bilbo, 2006ko azaroa**  
**ADARRA PEDAGOGI ERAKUNDEA**